

11. zenbakia / 2005eko ekaina

Leizako
aldizkaria


Marmari

- Plazaola trenbidea
- Hizkuntza minorizatuenguruko iritziak
- Asketa abesbatza
- Leizako kultur astea
- Hizkuntza paisaia
- Ikusi makusi, zer ikusi?...

**Hamaikagarren
zenbakian ere,**

hamaika kontu

zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena.

4-6. or.
Plazaolako trenbidea.

7. or. Testa.

8-9. or. Hizkuntza minorizatuen inguruko iritziak.

10-12. or.
Asketa gazte.

13. or. Ezetz asmatu eta pertsonaia ezkutua.

14-16. or. Leitzako kultur astea.

17-19. or. HITZA. Urtebete gure artean.

20-21. or. Leitzako hegaztiak.

22-23. or. Hizkuntza paisaia.

24-25. or. Ikusi makusi, zer ikusi?

26. or. Z-Z txorizalearen kasua.

27. or. Txistek eta Eroskopa.

Argiak eta itzalak


Horrelakoxea da bizitza bera, dudik ez dena. Batzuetan argitsuua, bestetan itzalaz betea. Eta horrelakoxea da Leitzza ere, eta Leitzako eguneroko bizitza. Artikulu edo erreportaje bat idatzi nahi dugun bakoitzean horretaz ohartzen gara. Istorio bakoitzak, gertakizun bakoitzak, gai bakoitzak, argiak eta itzalak izaten ditu, eta bi aldeak erakustea komeni da gainera.

Marmariren zenbaki honetan, adibidez. Hizkuntza minorizatuak hartu ditugu hizpide, besteak beste. Haien aldeko argudioak entzuten ditugu sarri, eta ohikoa da gure orriotan esaterako. Baina aurkakoak ere izan badira, eta horietako batzuk bildu ditugu hemen.

Edo Leitzako kultur astearen kronika. Oro har, emaitza polita izan duela uste dugu, eta jarraitzeko animoa ere eman behar duela pentsatzen dugu. Baina zenbait emanaldi edo ekitalditan jende gehiago ez biltzea ere pena da, interesgarriak eta atseginak izan baitira.

Aldizkari honetako beste gai bat: hizkuntza paisaia. Hor ere argia (euskaraz jarrita dauden hainbat errotulu, seinale, kartel...), eta itzalak (erdara hutsean dauden errotulu edo seinaleak). Argia itzala baino gehiago, akaso, baina ez gaitzala argi horrek itsutu, oraindik badugu-eta zer zuzendu edo zer hobetu.

Eta horrelaxe begira genitzake aldizkari honetako artikulu eta erreportaje guztiak. Jakina, horrelakoxea baita errealitatea. Ez dago perfektua den deus ere, baina ezta alderdi onik



gabekorik ere. Eta gauzak horrela direla jakiteak, gainera, denari bere neurria hartzen laguntzen digu, errazkerian edo etsipenean erori gabe.

Gu, behintzat, itzalaz gainera, herriarentzat positiboak diren gauzak ekartzen eta erakusten saiatzen gara. Uste dugu horiek erakustea gainerakoon motibazioa indartu dezakeela, eta askotan izan ohi dugun gehiegizko joera kexatiari eta negatiari aurre egiten lagun dezakeela. Eta uste dugu, gainera, zenbaitetan merezi duela gauza eta alderdi positiboak azpimarratu eta bereziki nabarmentzea, zenbaitetan kritika zorrotzak egin eta alderdi negatiboak salatzea merezi duen bezalaxe. Badaude baterako eta besterako arrazoiak, noski.

Saiatzen gara, gutxienez, gauzak egiten ahalegintzen direnen lana ere hona ekartzen: zenbaki honetan, adibidez, Asketakoen lana edo Kultur Taldekoena. Ari dira, ari dira, eta haien lanaren emaitza denontzako da, gainera. Horiek eta beste hainbatek herrian egiten duten lana inoiz bukatzen bada, aldizkari honek berak ere ia ez du zer kontatua izanen, hala gertatuz gero herriko bizitasuna bera apalduko baita.

Zorionez, ez zaigu iruditzen hala gertatuko denik; aitzitik, uste dugu hurrengo urtetan izanen dugula zer kontatua, eta, zorte pixka batekin, ekimen eta lan eder eta emankorren berri ematen jarraitu ahalko dugula. Horrelaxe, beraz, uda garaiarekin bat datorren ukitu baikor horrekin, aurkezten eta eskaintzen dizugu Marmariren 11. zenbakia.



Plazaolako TRENBIDEA

Plazaolak 1953. urtean egin zuen azkeneko bidaia gure inguruetan barna. Trena desagertu zen, ez ordea trenbidea. Garai bateko trenaren aztarna gisa gelditu zaigu mendi-baso-lurretan egindako arrasto hura, eta horrela gogoratuko dugu beti inoiz hemendik Plazaola pasa zela.

Gehienok trenbidea beti hor ezagutu dugu, eta, zalantzarik gabe, gure herriko paisaiaren zati bat izan da, da, eta izanen da. Kostako litzaiguke trenbiderik gabeko Leitza irudikatzea, eta esan liteke gure ondarearen zati bat ere badela.

Ondarea esan dugu, eta zorionez ondarea zaintzeko kontzientzia gero eta bi-ziagoa da gure artean: hizkuntza, kultura, ohiturak... gordetzeko eta zaintzeko gogo sendotu da azken urteotan, eta gogo hori Plazaolako trenbideraino ere iritsi

da: azken aldi honetan trenaren bide zaharra natur bide gisa berreskuratzen ari da, eta herritarron aisialdirako ibilbide bikaina osatzeko aukera dago.

Berreskuratzeko lan horiek noiz eta nola sortu eta egin diren jakiteko Plazaola Partzuergora jo dugu informazio eske, eta hor eman dizkigute jarraian datozen argi-bide guztiak.

PLAZAOLA TURISMO PARTZUERGOA

Plazaola Turismo Partzuergoa da trenbidea berreskuratzeko lan eta ardura nagusia bere gain hartu duen erakundea. Ez da bere eginkizun bakarra, baina bai garrantzitsuenetako bat.

Partzuergoa eskualdeko erakunde bat da: hain zuzen ere Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Leitza, Areso eta Ultzama bil-

tzen ditu bere baitan. Inguru horretako udalek eta hainbat entitate pribatuk osatzen dute, eta Lekunberri dauka egoitza. Guztira 500 km², 34 herri eta 100 inguru entitate pribatu biltzen ditu (informazio gehiago behar duenak www.plazaola.org helbidean begira dezake).

Erakunde honen jardueran nagusia eskualdeko turismoa bultzatzea da, jasangarritasunaren ikuspegia kontuan hartuta. Inguruko turismoa planifikatu, kudeatu eta sutatu nahi du, beraz, eta eskualdeko ardatz gisa Plazaolako Natur Bidea hartu du.

Turismoa aipatu dugunez, bidenabar Partzuergoak berak bildu dituen zenbait datu ekarriko ditugu hona:

- Lekunberriko turismo bulegoak jasotako datuen arabera, 14.000 inguru bisitari

etortzen dira urtero bertara, eta horietako % 90 inguruk natur bidearen zatiren bat bisitatzen du.

- 80.000 lagun inguruk bisitatzen dute urtero Aralar eta Mikel Deunaren Santutegia.
- Plazaola Partzuergoaren lurraldeko beste muturra, Orgiko Hariztia hain zuzen, 50.000 lagun inguruk bisitatzen dute urtero.
- Horietaz gain, eta horien inguruko datu zehatzik ez dagoen arren, badira bisitari asko biltzen dituzten beste inguru batzuk ere: Larraun ibaiaren iturburua, Leitzalarea...

PLAZAOLAREN HISTORIA, LABUR-LABUR

Mendearen hasieran meatze-trena zen eta Plazaolako meategietatik Andoainera burdina garraiatzen zuten. Bide estukoa zen, eta lurrun-makina batek mugiarazten zuten.

1914an bidaiariak eramaten hasi zen Iruñea eta Donostia hiriburuak lotuz. Lotura-lan hori egin zuen berrogei urtean zehar, eta Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko harremanetarako nahiz merkataritzarako ibilbidea izan zen; baita kultur trukeko ardatza ere. 1953ko uholdeen eta autobusaren lehia gogorraren ondorioz, 1958an trenbidea desagertu egin zen, paisaian arrasto nabarmena utzita.

TRENBIDEAREN BERRESKURAPENA

Plazaolako Natur Bidea izan da Turismo Partzuergoaren ardatz nagusia 1994.ean sortu zenetik. Natur Bidea naturaz gozatzeko baliabidea da, zalantzarik gabe, baina horretaz gain eskualdea artikulatzeko modua ere bada, eta baita bisitariak inguruan banatzeko modua ere

2000. urtean Plazaola Natur Bideko lehendabiziko 7 kilometroak inauguratu ziren. Hain zuzen ere, Mugiro-Lekunberri-Uitzi zatia. 2001.ean, berriz, bigarren fasea hasi zen, eta beste 12 kilometro moldatu ziren, Uitziko tunelean hasi eta



Lehen



Orain

Gipuzkoako mugaraino. Gaur arte, beraz, ia 20 kilometro berreskuratu dira.

Bideaz gainera, 15 tunel egokitu dira, guztira 2.150 metro. Lau tuneletan -horietako hiru Leitzan- argiteria jarri zen. Tunel horiek hautatu ziren oso luzeak zirelako (Leitzako tunelak 650 metro ditu) edo zuzen-zuzenak ez zirelako. Argiteriari esker trenbideko ibilbideak kalitatea irabazi du eta pasabide horietan segurtasuna ere handitu egin da.

Tunelez gain zubiak ere egokitu dira. Gehienak egoera on samarrean zeuden arren, berritu egin dira eta barandak jarri dira.

Bestalde, elementu osagarriak daude: seinaleak, zurezko hesiak, atsedun-gune-

etako bankuak eta mahaiak, informazio-panelak...

Proiektuak, oro har, jatorrizko bidearen ezaugarriak errespetatzen ditu, eta baita inguru honetako abeltzainen erabilera ere. Erabilera hori funtsezkoa da ibilbidea kontserbatzeko eta mantentzeko.

Azkenik, Natur Bidearen paisaiak duen aberastasuna nabarmendu behar da, ederra eta bikaina baita, eta bisitariari natura-paisaia horretaz gozatzeko parada ezin hobea eskaintzen baitio.

Berreskuratzeko lanak Ingurugiro Ministerioak zuzendu ditu, eta Plazaola Partzuergoak hartu du bere gain ondarearen, mantentzearen eta erabilera publikoaren ardura.



Plazaola trenbidea.

Mantentzea, zehazki, Natur Bideak zeharkatzen dituen Udalek hartu dute beren gain. Horretarako, “Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A.” enpresarekin hitzarmen bat sinatu dute.

Bestalde, eta ibilbidearen erabilera arautzeko eta egokitzeko, Ordenantza bat onartu zen. Gaur egun Foru-zaingoak zaintzen du ibilbidea, baina badaude zenbait arazo “quads” izeneko ibilgailuekin eta baita bestelakoekin ere.

ETORKIZUNEN PROIEKTUAK

Asko dira berreskuratutako kilometroak, baina ibilbide osoa egin ahal izateko oraindik urrats batzuk falta dira. Plazaola Partzuergoaren helburua ibilbidea osatzea da, baina ez da eginkizun erraza: aurrekontua handia da eta finantziazioa lortzea zaila da.

Besteak beste, Uitziko tunela berreskuratzeko lana egiteko dago. Tunel horrek 2,7 kilometroko luzera dauka, eta, berreskuratuko balitz, Lekunberrin eta Leitzan moldatutako zatiak lotuta geldituko liriteke, eta trenbidearen Nafarroako zatiak 22 kilometro izanen lituzke, etenik gabe.

Gipuzkoan berreskuratu den zatiak luzera berbera dauka (Andoaindik Nafarroako mugaraino 22 kilometro). Uitziko tunela moldatuz gero, beraz, guztira 44 kilometroko Natur Bidea izanen

genuke. Esan behar da, hala ere, Gipuzkoako zatiak ez duela “Natur Bidea” izendapena jaso, ez dagoelako debekaturata bertan ibilgailuak ibiltzea, eta egurren ateratzen duten kamioiek ere erabiltzen dutelako.

Leitzan badago, bestalde, berreskuratu gabeko tunel txiki bat, 100 metrokoa. Telleriko tunela, hain zuzen. Lanak hasi zirenean erori egin zen eta ezin izan zen fase horretan berreskuratu. Gaur egun bide alternatibo bat badu, errepidean sartzen dena, eta oraingoz ez da lortu errepidera atera gabeko bide alternatiborik moldatzea.

Horretaz gain, Landaborda inguruan dagoen tunela argitzeko laguntza tramitatzeko asmoa dago, jende asko ibiltzen

baita bertan, eta herritarrek ere hala eskatu baitute.

Gaur egun Plazaola Turismo Partzuergo Iruñea aldera doan trenbide zatia aztertzen ari da, hura ere berreskuratzeko asmoz. Zehazki, Mugiro-Irurtzun zatirako proiektua egiten ari da. Zati horrek errepidearen eta 115 autobien eragina jaso zuen, eta bizikletan ibiltzeko bide moduko baten bitartez moldatu nahi da.

Honaino, beraz, Plazaola trenbidearen inguruan lortu ditugun argibideak. Natur bide hau hobekixeago ezagutzeko asmoz idatzi dugu artikulutxoak, baina, dudik gabe, bertara joatea eta bertan ibiltzea duzu hura ezagutzeko –eta disfrutatze komodurik onena.



Dantza emanaldi bat trenbidean.

BAIETZ ASMATU!

Euskara dugu berriz hizpide, Marmarin ohiko kontua. Oraingoan, euskararen inguruko galdera batzuk prestatu ditugu, baita erantzunak ere. Lau aukera eman dizkizugu, horietako hiru okerrak eta bat zuzena. Aisa asmatzeko modukoak jarri ditugu, beraz, galdetegia hutsik egin gabe osatuko duzula pentsatzen dugu. Hala ez baldin bada, badakizu, segi liburutegira eta jan-tzi ezazu zeure burua!

1.- Nor da Euskaltzaindiko Lehendakaria?

- A) Andres Urrutia
- B) Andres Iturria
- C) Andres Durruti
- D) Ez dago lehendakaririk, euskaltzainen asanblada da Euskaltzaindiak duen organo bakarra

2.- Zein dira euskararen ahaiderik hurbilenak?

- A) Kaukasoko hizkuntzak
- B) Berlineko periferiako auzoetako gazte hizkerak
- C) Inork ez du euskararen ahaideen inguruko erabateko frogarik aurkitu
- D) Mozanbikoko iparraldeko hizkuntzak

3.- Legearen arabera, euskal herritarrok euskara ezagutu beharra daukagu:

- A) Gainerakoan, ikasi arte, urtero 200 euroko isuna ordainduko dugu
- B) Ez, ez dugu euskara ezagutu beharrik. Bai, ordea, gaztelania edo frantsesa.
- C) Ez, ez dugu ezagutu beharrik, baina lehenbailehen ikasteko konpromisoa hartu behar dugu, idatziz.
- D) Euskal Herrian ez dago legerik, anarkia hutsean bizi gara.

4.- Euskara, Europako erakunde ofizialetan:

- A) Hizkuntza ofiziala da, gaztelaniaren maila berean
- B) Ez da hizkuntza ofiziala, euskaldunok hala erabaki dugulako
- C) Euskara ez da hizkuntza ofiziala. Bai, ordea, gaztelania eta frantsesa
- D) Ofiziala da, baina soilik bidaia-agentzietan eta mendiko aterpeetan

5.- Euskara:

- A) Hizkuntza indoeuroparra da
- B) Ez dago inongo hizkuntza-familiatan sailkatua
- C) Hizkuntza altaikoa da
- D) Hizkuntza indoeuroparra zen, baina gaintzeko kideek familiatik bidali egin zuten

6.- Nork ematen du Bai Euskarari Ziurtagiria?

- A) Nork bere buruari, nahi duenean
- B) Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak
- C) Herriko eskolako euskara irakasleak
- D) Euskaldun Zintzoen Zaindarien Batzordeak

7.- Zer da Bai Euskarari Ziurtagiria?

- A) Euskaraz badakizula erakusten duen agiria
- B) Zure arbaso guztiak euskaldunak zirela ziurtatzen duen agiria
- C) Orduak euskaraz nola idazten diren badakizula frogatzen duen agiria
- D) Euskara normalizatzeko hartutako konpromisoak kreditatzen dituen agiria

8.- Zer da Kontseilua?

- A) Euskal Herriko euskaldunak zaharrenak biltzen dituen erakundea
- B) Larrituta dauden euskaldunei aholkua eta kontsolamendua ematen dien erakundea
- C) Euskaltzale jakintsuenak biltzen dituen organoa
- D) Euskararen Gizarte Erakundearen bilgunea

9.- Noiz sortu zen euskara?

- A) Juxtu-juxtu, behar zen momentuan
- B) Euskaraz betierekoa da, ez da inoiz sortu
- C) Ez dago jakiterik
- D) Babelgo Dorrearen garaian

10.- Euskara hizkuntza zaila al da?

- A) Bai, baina gure umeak besteak baino espabilatuagoak direnez, denbora bertsua behar dute hizkuntzaz jabetzeko
- B) Hizkuntza zailagorik edo errazagorik ba ote dagoen ez du oraingoz inork frogatu
- C) Bai, hizkuntza zaila da, euskaldunok gauzak konplikatze berezko joera baitauek
- D) Zailtasuna neurtzen duen zerrendan, munduko 6.103 hizkuntzen artean 4.317. postuan dago; beraz, ez da bereziki zaila

11.- Zenbat hiztun dauzka euskarak?

- A) 700.000 inguru, egindako ikerketen arabera
- B) 200.000 inguru, denak jator eta zintzo askoak
- C) 2.000.000 inguru, gezurra badirudi ere
- D) 1.000.001 edo 1.000.002, iturriaren arabera

12.- Euskaltzaindiaren arauak:

- A) Txerto baten bitartez sartzen dizkigute, bost urtetik behin
- B) Argitaratu egiten dira, herritarrak eskura izan ditzan
- C) Gordeleku sekretu batean daude, eta soilik euskaltzain zaharrenek ikus ditzakete
- D) Euskal Herriko okindegi guztietan banatzen dituzte, egunero, ogiarekin batera

13.- Euskararen kale-erabilera neurtzen denean:

- A) Kalean zenbat euskara erabiltzen den neurtzen da
- B) Euskara zer kaletan erabiltzen den neurtzen da
- C) Euskara erabiltzeko garaian kale egiten ote dugun neurtzen da
- D) Kaleko euskara nolakoa den aztertzen da

14.- Nafarroako euskaldunen portzentajea:

- A) Nafarren % 100 euskalduna da, baina askori lotsa ematen dio aitortzeak
- B) Nafarren % 50 euskalduna da, ziur, eta gainerako % 50az ez dakigu deus
- C) Nafarren % 11 inguru euskalduna da
- D) Nafarren % 27,345342859 euskalduna da, eta heldu den asterako portzentajea % 27,345342860ra igoko da

15.- EGA titulua honakoa da:

- A) Euskal Gaietan Aditua
- B) Euskalkiaren Gaitasun Agiria
- C) Euskararen Gaitasun Agiria
- D) Euskara Gordetzeko Altxorra

Hizkuntza minorizatuen inguruko iritziak

Euskara hizkuntza minorizatu edo gutxitua da. Horrek, zalantzarik gabe, hizkuntza «txikien» inguruko kezka eta elkartasun sentimendua piztu du gurean. Euskaldunok badakigu zer den hizkuntza nagusien mendean bizitzea, eta mendetako eskarmentua daukagu. Hizkuntza minorizatuen aldeko ahotsak, beraz, poz handiz entzuten ditugu, eta gaur egun, zorionez, asko dira hizkuntza guztiei eustearen alde aritzen direnak.

Ez denak, ordea. Gezurra badirudi ere, badira oraindik ere hizkuntza «txiki» horiei eustea alferrikako lantzat hartzen dutenak, eta nahiago luketenak horiek denak bazter uztea. Hizkuntza minorizatuek —euskara, adibidez— badituzte, beraz, aldeko argudioak, baina baita aurkakoak ere. Artikulu honetan, labur antzean, horien berri eman nahi dugu, Nick Gardner Bridger izeneko teknikari batek argitaratutako txostena abiapuntu gisa hartuta (artikulu osoa www.erabili.com helbidean).

Jakina, gure ikuspuntua hizkuntza gutxituen aldekoa da —ez dago ezkutatu beharrik—, eta aurkako argudio horiei aurre egiten saiatuko gara.

«HIZKUNTZA GUTXITUAK, MINORIZATUAK: HORIEK GABE HOBE?»

Badago pentsamolde jakin bat, galdera hori egiten duena, eta, are gehiago, baiezkoarekin erantzuten duena. Baiezkoa

esateko erabiltzen dituen argudioetako batzuk dira honako hauek:

Hizkuntza bakarra izatea askoz merkeago da

Honen atzean dagoena, normalean, honakoa da: «egin dezagun denok nire hizkuntzan». Hizkuntza bakarra merkeago dela esaten duenari, galdetu behar ko zaio berea uzteko prest ote dagoen. Normalean, hizkuntza nagusien (gaztelania, frantsesa...) hiztunek esaten dituzte horrelakoak. Haien hizkuntza ingelesaren mesedetan utziko luketen galdetuz gero, ikusi beharko litzateke zein den erantzuna.



Eta, bestalde, Gardnerrek dioen bezala, «mundu osoan zehar omen dau den sei mila inguru hizkuntzak bakar batera murriztea berez prozesu ezin garestiagoa izan liteke eta ez askoz merkeago».

Argudio horren alderik okerreana, hala ere, hau da: hizkuntzen inguruko balorazioa diruaren arabera egitea. Kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarren aberastasunari begiratu beharrean, hizkuntzen beharra ekonomikoki neurtzen du.

Hizkuntza gutxituak berreskuratzea ezinezkoa da, eta denbora, dirua eta energia alferrik galtzea da

Argudio honen arabera hizkuntza txikiak «berez» desagertzen dira, modu naturalean. Gauza jakina da, ordea, hizkuntzen galera-prozesuan beti arrazoi politikoak, ekonomikoak, kulturalak, militarrik... daudela. Alegia, ez dela inolaz ere fenomeno naturala.

Bestalde, badaude hizkuntza berreskuratzeko ahalegin arrakastatsua egin dutenak (Belgika, Quebec, Suomi...). Ez da alferrikako ahalegina —bai ahalegin handia—, eta are gutxiago dirua eta denbora galtzea. Irabazia, kulturaren eta aniztasunaren ikuspegitik behintzat, ikaragarri handia da.

Hizkuntza asko berez dira desegokiak bizitza modernorako, barruan dute gaitza, eta horrexegatik desagertzen ari dira

Argudio hori hizkuntzalaritzak aspaldi deuseztatu zuen. Hizkuntza guztiak gauza dira beren hiztunen beharrak asetzeko, horretarako aukera emanez gero. Hizkuntza guztiak sistema konplexuak eta

eraginkorrek dira, bizitzako behar guztietarako molda daitezkeenak.

Hizkuntza gutxituen kasuan, beren hiztunek ere ez dituzte hizkuntza horiek balioesten

Hori horrela gertatu denik ezin da ukatu, baina argi utzi behar da hizkuntza-zanpaketaren ondorio bat dela. Hizkuntza nagusiaren presioak eta eraginak sortzen duen jarrera da, baina, aurreko argudioari buruz esan dugun bezala, ez da berezko fenomeno, ez da gertaera naturala. Kanpo-presiorik edo errepresiorik gabe, normalena da nork bere hizkuntza baloratu eta estimatzea.

Bestalde, Gardnerrek dioen bezala, «bereziki bidegabekoa dirudi mintzaldaketaren biktimei egozteak halako indarrei amore ematearen errua. Izan ere, mintzaldaketa-indar horiei aurre egiteak batzuetan amore berezia eskatzen du. Halako jarrera negatiboak presio sozial eta ekonomiko izugarrien emaitza dira normalean». Alegia, presio horren biktimak ezingo dira errudun bihurtu.

Horiek, beraz, hizkuntza gutxituen aurkako argudio batzuk. Azalean, argudio praktikoak itxura dute. Baina sakonean, dibertsitatearen aurkakoak dira, eta atzean dagoena «indartsuenaren legea» izaten da; eta beti indartsuenari egiten diote mesede, ahulenaren aurka.

ZERGATIK BABESTU HIZKUNTZA GUTXITUAK?

Ikus dezagun orain txanponaren beste aldea. Hizkuntza gutxituek babesa behar dutela uste dugu guk. Eman ditzaugun horren aldeko zenbait argudio, labor-labor, aurreko atalean esandakoei eransteko:

Hizkuntza-eskubideen argudioa

Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Ondorioz, gainerako giza eskubideak bezalaxe, errespetatu eta bete egin behar dira. Nazioartean gero eta gehiago di-

ra hizkuntza eskubideak aitortzen dituzten akordioak, itunak eta erabakiak.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar hizkuntza gutxituetako hiztunok ere zergak ordaintzen ditugula, eta hizkuntza nagusiak bezala, gureak ere sostengu ekonomikoa izan behar duela.

Argudio ekologikoa

Hitzez hitz, honela dio Gardnerrek: «argudio ekologikoak konparazio bat egiten du: alde batetik, landare eta animalietan ikus daitekeen biodibertsitatea eta, bestetik, hizkuntzetan dagoen aniztasuna. Eta azpimarratzen du justu hizkuntzak ugariagoak diren lekuetan, landare eta animalia-espezieak ere ugariagoak direla, batez ere eskualde tropikal edo subtropikaletan. Leku horietatik iparraldera edo hegoaldera urruntzen garen neurrian, aniztasuna ere murrizten doa.

Baso tropikaletako zuhaitzak moztean edota oraindik ikertu gabeko landareak desagertzen direnean zer galtzen ari garen ondo ez dakigun bezala, sarritan ez dakigu justu-justu zer galtzen ari garen hizkuntza bat suntsitzen denean. Ere muurrirako hizkuntzen erabiltzaileen zoritxarrrerako, halako ondasun ederra salbatzeko premia ez da hain erraz saltzen entzuleen artean, nahiz eta entzule horiek berak panda handiak, Bengalako tigreak,



Baso tropikaletako zuhaitzak moztean edota oraindik ikertu gabeko landareak desagertzen direnean zer galtzen ari garen ondo ez dakigun bezala, sarritan ez dakigu justu-justu zer galtzen ari garen hizkuntza bat suntsitzen denean.

baleak, edelweiss-ak eta ohiz kanpoko orkideak salbatzearen alde egon.»



Hizkuntza guztiak izan daitezke bizimodu modernorako egokiak.

Globalizazioaren aurkako argudioa

Globalizazioak gauza onak ekar ditzake, baina baita txarrak ere: aniztasuna suntsitzea, uniformizazioa... Batzuen ustez, hizkuntza-erresistentziak globalizazioaren eragin txarrari aurre egiten laguntzen du.

Ondasun-suntsipenaren argudioa

Berriz ere, Gardnerren hitzak ekarriko ditugu: «Hizkuntza bat galtzea kultura horren zati bat galtzea da. Kultura tradizional batzuek, adibide bat ematearren, bertako fenomeno naturalen, landareen edota animalien oso analisi sofistikuak ematen dituzte, batzuetan zientzia modernoak eskaintzen dituenak baino aberatsagoak. Jakituria-altxor horiek galtzeko arriskuan gaude, baldin eta jakituria hori jaso baino lehen hizkuntza bera desagertzen bada».

Argudio linguistikoa

Giza hizkuntzak nola funtzionatzen duen jakin nahi badugu, zenbat eta iturri gehiago jorratzeko modua izan, hainbat eta hobeto.

Ez ditugu argudio guztiak agortu, jakina. Hizkuntza gutxituak babesteko hamaika arrazoi daude, eta zuk ere, irakurle, izanen dituzu zure arrazoi propioak. Hemendik, besterik gabe, arrazoi horiei sendo eusteko gonbitea egiten dizugu; eta, zehazkiago, gurea den euskara erabiltzeko gonbitea.

Asketa gazte



Eiffel dorrearen aurrean egindako argazkia.

FITXA

- **Izena:** Asketa Gazte
- **Jarduera:** Abesbatza
- **Noiz sortua:** 1982an
- **Nork sortua:** J.J. Aizkorbek
- **Partaide kopurua:** 30 inguru
- **Partaideen adina:** Hamalau-hirurogeita hama.....
- **Egoitza:** Kultur etxe baten faltan, Apezetxea
- **Ibilbide osoan zehar izan dituen zuzendariak:** J.J. Aizkorbe, Maialen Irigoien, J.Bautista Irazoki eta beste ordezkari eta laguntzaile batzuk.
- **Non ibilia:** Euskal Herriko hainbat herritan, eta, horiez gain, Katalunian, Polonian eta Parisen.

Euskaldunok kantuzaleak omen gara. Aspaldiko topikoa da behintzat. Denak agian ez, baina batzuk bai behintzat, hala dira, kantuzaleak. Eta abesteko elkartu egiten dira: tabernan, otordutan, talde txikitant... eta abesbatzatan.

Eta Leitzan ere baditugu, noski, kantatzea gustuko duten herritarrak, eta horretarako badute non elkartu. Asketa Gazte da kantatzea gustuko duten horientzako bilguneetako bat; ez bakarra, abesbatza eta talde gehiago ere badaudelako (Jeiki, esaterako), baina bai behintzat erreferentzia garrantzitsua.

Asketa Gazte herriko abesbatzeta bat dugu, beraz, eta haren inguruan zer edo zer ikasi nahian haiengana jo dugu. Elkarrizketatxo bat egin diegu, eta hementxe duzue emaitza.

■ **Hasteko, gehienontzat nahikoa ezaguna izan arren, azaldu ezazu abesbatzari Asketa izena nork jarri zion, nola, edo zergatik?**

Uuuuhhh, harrapatu gaituzue; Jota Jotak jarri izan zion eta auskalo zergatik!

■ **Sortu zinetenetik gaur arte abesbatzak, gainerako talde gehienek bezala, gorabeherak izanen ziotuen. Aldi hobeak eta eskasagoak. Nolako izan da ibilbide hori?**

Leitzatik Goizuetara joan-etorri askotako bidaia bezalakoa, baina aurrera egitea lortzen dugu. Batzuk Parisera joan eta oraindik ez die bueltatu. Han gelditu ote zien?

■ **Gaur egun, bistan denez, garai batean baino gutxiago abesten**

da. Asketa abesbatzak, hala ere, oraindik ere lanean jarraitzen du eta gazteak biltzea lortzen du. Nola lortzen duzue gaur egun gazteak abesteko motibatzea?

Umetan harrapatu eta aldeitten ez utziz. Beti tokatzen da abestea gustatzen zaion norbait eta bidaiatzeak ere jende gaztea zertxobait gehiago motibatzen du.

■ **Zein da abesbatzek inguruan duten panorama? Abesbatza asko al dago hor barna, eskualdean, Nafarroan, Euskal Herrian?**

Panorama orokorrean grixantxa, naiz tarteka urdin gunek azaltzen diren. Nafarroako mendialdean bederlatzi bat abesbatza gaude federatuta.

■ **Ba al duzue harremanik beste abesbatza horiekin guztiekin?**

Zonaldeko koruok urtean behin topaketa antolatzen dugu elkar ezagutzeko, abesteko eta otordu eder bat egiteko.

■ **Berriz ere zuen eguneroko lanera itzulita, zenbatero entsaiatzen duzue?**

Astean bi aldiz astearte eta ostiraletan. Udan oporrak!

■ **Eta nolakoak izaten dira entsaiak: denak batera, ahots bakoitza bere aldetik, zuzendaria...?**

Oso pertsonalizatuak (bakoitzak ahal duten). Batzuk bezperan, bestek Parisen...

■ **Ahotsa da, noski, zuen tresna nagusia. Nola zaintzen duzue? Deus berezirik egiten al duzue?**

Abesten hasi aurretik zintzurra beti ongi berotu behar izaten da, horretarako erabiltzen ditugun metodoak ezberdinak izaten dira, batzuk barra-barra hitz egin, beste batzuk zigarroak erre, tarteka eztarrie pixkoat busti...

■ **Normalean ahots hutsarekin aritzen zarete, musika tresnarik gabe. Nahita egiten duzue horrela, ohitura hala delako? Edo pentsatu al duzue inoiz tarteka musika-tresnaren bat ere sartzea?**

Lortzen ditudun partitura gehienak ahots hutsezkoak direnez horrela abesten ditugu baina ia kontzertu guztietan ematen dugu abestiren bat akordioi, txistu, atabal edo panderoz lagunduta.

■ **Euskal kantuei lehentasuna ematen diezue, eta zuen erreperatorioan oso garrantzitsuak dira. Zergatik?**

Euskaldunak garelako eta gure kultura, musika... ezagutarazi eta zabaldu nahi dugulako.

■ **Oso kantari fina izan behar al da abesbatzan aritzeko?**

Probatxo bat pasatzea beharrezkoa da, Uso Zuria... kantatu behar da zein ahotsetakoa zaren zehazteko, eta aski, hemen denetik onartzen da. (Mutila bada hobe).

■ **Taldean eta jendaurrean kantatzen aritzeak emanen du, ziur asko, bakarka eta etxean aritzeak ematen ez duen zerbait. Zer ematen dizue abesbatzan aritzeak?**

Etxean abesten uzten ez digutenei, kantatzeko aukera; bakarka juxtu-juxtuan aritzen garenei besteen ondoan seguruago kantatzeko modua; guztiei lagun onak, eta jendaurrean (jende



Kataluñara egindako bidaia.

■ **Asketan, oker ez bagaude betidanik gainera, askoz gehiago dira neskek mutilak baino. Eta Asketan bezala, baita beste hainbat abesbatzatan ere. Nola azalduko zenuke hori?**

Askotan galdetzen duzuen zerbait da eta ez dugu erantzun garbirik. Futbolagatik akaso?

■ **Zer egin behar du Asketan kantatzen hasi nahi duen pertsonak?**

Gutako edozeinengana hurbildu eta gurekin kantatzen hasi nahi duela esan, besterik ez. (Mutila bada hobe).

dezente biltzen bada behintzat) nerbioak, ilusioa, ongi egindako lanak ematen duen satisfazioa...

■ **Eta sakrifizio berezirik egin behar al da?**

Igande goizetan abestu behar bada, ikaragarria!

■ **Han eta hemen ibili zarete, eta urruti samar ere joan izan zarete kantatzera. Zein da, zure ustez, egin duzuen bidaiarik bereziena, atseginena, xelebreena...?**

Egia esateko denak izan dira bereziak, atseginak eta xelebreak, baina baten bat aipatzekotan Poloniakoa aipatu nuke, alde batetik kilometro asko egin genuelako, iraupenez ere luzeena izan zelako, hizkuntza eta kultura guztiz ezberdina zelako, bertako familietan bizi izan ginelako, oso jende jatorra topatu genuelako, krixton hotza egiten zuelako, zerbeza mundiala zelako....

■ Zerk ematen du hainbeste urtean abesbatzan lanean jarraitzeko motibazioa?

Afizioak. Eta herri txikietan abesteko ohitura galtzeko beldurrak.



kamara nahikoa mugitua, Asketako lagunak ere bai.

■ Tarteka Leitzan ere egiten duzue emanaldiren bat. Leitzako jendea biltzen al da herriko abesbatza entzuterara? Estimaten al da herrian bertan Asketaren lana?

Haur abesbatzak kantatzen badu jende dexente biltzen da, badakizue, gurasoak, senideak attun-amonak, lehengusuak... Gazte abesbatzako txanda denean gutxixeago, beharbada ikusiagoak edo entzunagoak gaudelako baina ezin gaitezke gehiegi kexatu, beste herrietan ere abesbatzek ez dute jende gehiegirik biltzen eta.

■ Lehiaketatan eta parte hartzeko tentaldirik izaten al duzue inoiz?

Egia esateko haur abesbatzak parte hartu izan du lehiaketatan emaitza

nahiko onak lortuz baina gazte abesbatzarekin ez gara horrelakoetara inoiz joan eta ez dugu saiakera berezirik ere egin.

■ Gaur egungo bizimoduarekin ohiturak azkar samar aldatzen ari dira. Baita abesteko edo elkartzeko ohitura ere. Nolako etorkizuna ikusten diozu abesbatzari?

Ez dugu etorkizunean gehiegi pentsatzen; egunekoa bizitzen saiatzen gara eta etorkizuna asko jota ere urte erdikoa izaten da. Abesbatza etengabe berritzen ari zuten da eta ezin dira planak epe luzera egin. Hala ere, abesteko afizioa duen jen-

antzeko bat zegoen eta bertara sartu ginen. Tabernan ia inor ez zegoen eta gu sartu ginenean kamareroak oso pozik jarri ziren eta edaten genuen zerbeza bakoitzeko kolore guztietako txupitoak ateratzen zituzten. Azkenean billar gainean dantzan ere ibili zen jendea eta krixton parranda egin genuen txoferraren "kulpaz".

- Kataluniara joan ginen beste batean, baserritar jantziekin gindoazen Bartzelonako euskal etxean abestu behar bainuen eta autobusetik atera ginenean, japoniar autobus bat pasa zen paretik, gure ondoan gelditu eta argazki pila bat atera zizkiguten.

- Egun horretan bertan eguerdian euskal etxean abestu ondoren, bazkariak ematen hasi ziren eta kataluniar familia handi bat bazkaltzera joan zen haien amona euskaldunaren urtebetetzea ospatzera. Gu bertan ginela ikusi eta ia zerbait abesteko genuen eskatu zigun familiako batek; postre garaian haien mahaira hurbildu eta opari moduan amonari euskal abesti bat kantatu genion. Amona guztiz emozionatu zen eta familiakoak baita ere.

- Beste behin Hernaniko kultur etxean kontzertua eman genuen eta azken kanta bukatu genuenean, jendea (oso gutxi) txaloka hasi zen eta gure zuzendaria jendea agurtzen ari zen. Abesbatzako ei ere agurtzeko esatera bueltatu zenean, abesbatzako inor ez zegoela konturatu zen, denek alde egin bainuen ordurako.

- Eta azkena kontatuko dizuet. Polonia-ra egin genuen bidaiari, Krakoviara joan ginen eta plaza batean geundela bertako folk talde bat ari zen musika jotzen. Atzerritarrak ginela berehala susmatu zuten eta ia nongoak ginen galdetu ziguten. Guk euskaldunak ginela esan genien eta beraiek baietz, ulertu zutela, eta hemengo kanta bat joko zutela esan ziguten. Halako batean hasi ziren musika jotzen eta ezetz asmatu zer jo zuten? "Que viva España". Bai, bai, entzun duzue. Eta guk gainera eskerrik asko esan behar!

dea beti izanen da eta era honetako edo beste batekoa baina abesbatzak aurrera egingen du. Noiz arte? Jakinen banu...

■ Hainbeste urtetako jardunean gertatu izan zaizkizue xelebrekeriak edo anekdotak. Kontatzeko modukorik ba al duzu?

Ibiltzen denari beti tokatzen zaizkio eta gogoan ditudan batzuk kontatuko dizkizuet; beste batzuk hala ere ez ditut kontatuko "top secret" horietakoak baitira.

- Kataluniara egin genuen bidaietako batean, jatetxe batera afaltzera joan eta ondoren trago batzuk hartzera joan ginen. Autobuseko txoferrarekin hitzordua egin zegoen eta hantxe bildu ginen baina autobusik ez azaltzen. Nazkatu ginen eta parea taberna edo diskoteka

Ezetz asmatu

Ariketa hau, bistan denez, ezin dute leitzar guztiek % 100ean asmatu. Izan ere, jarritako argazkiren bat oso aspaldikoa da, eta soilik zaharrenek ezagutu ditzakete bertan agertzen direnak. Bale, horrekin baduzue aitzakia. Gurasoei edo aitona-monei galdetu. Baina badira argazki berriagoak ere, eta horien kasuan asmatu beharra dago. Ea.



Pertsonaia ezkutua

Ez da gaiztakeria hutsa ariketa hau, ez pentsa. Ezin asmatuz pixka bat sufritzen dugula? Baliteke, noski, baina horren aldean, begia eta adimena zorrozten ere laguntzen du. Eta, are garrantzitsuagoa, zure ingurukoekin harremana lantzeko ere balio du: ez baduzu asmatzen, ondokoari galdetu, hitz egiteko aitzakia eman... Ziur gaude batek baino gehiagok aitzakia hau erabili duela interesatzen zaion pertsonarekin hizketan hasteko: "barkatu, argazkikoa zein del ba al dakizu?"

Beraz, protestarik ez egin, eta hasi pertsonaia ezkutua zein den asmatzeko lanean.





Mulambo perkusio taldea.



Kulkirekin jostaketan.



Jagoba Errekondoren hitzaldia.



Eskulangintzako XXV.Erakusketa.

Leitzako kultur astea

Leitzako Kultur Astea klasiko bat da herriko egutegian. Urteak 365 egun dauzka hemen ere, toki guztietan bezalaxe, baina horietako batzuk oso ongi markatuta dauzkagu egutegian: errege bezpera, krosa, sanjuan bezpera, pestak... Eta baita kultur astea ere.

Egitaraua eta astea zertsu izaten den, nolatsukoa izaten den, ongi samar dakigu denok. Hain ongi ez dakiguna, ziur asko, horren atzean zenbateko lana dagoen. Izan ere, gauzak ez dira beren kabuz sortzen eta antolatzen. Norbaitek

egin behar izaten ditu. Nork? Bada, kultur astearen kasuan, Leitzako Kultur Taldeak.

Urte dezente egin du lanean talde horrek, eta leitzar ugari pasa da bertatik. Azken urte honetan ere kide berriak sartu dira taldean, eta hori berri pozgarria da, beharrezkoa baita jendea eta asmoak ere berritzea.

Erreportaje edo kronika honetan, aurtengo kultur asteak eman duena biltzen saiatuko gara. Ekitaldi ugari izan da, denontzako moduko menua osatu

dute kultur taldekoek. Aste batzuk joan dira egin zenetik, askok ahaztuxea izanen dute, baina hala ere hona ekarri nahi izan dugu, hainbesteko lana egin duten horiei animo pixka bat emateko, egindakoa eskertzeko, eta hurrengo urteetan ere horretan jarrai dezaten bul-tzadatxoa emateko. Eta, bide batez, laguntzaile diren guztiei ere eskerrak eman beharko zaizkie, horiek gabe ere ez bailitzateke kultur asterik eginen: dendak, enpresak, ikastetxeak, udala, tabernariak eta herriko elkarteak.



Ruper Ordorikaren kontzertua.



Leitzako dantzariak.



Kulkirekin jostaketan.



Udaletxean jarritako erakusketak.

Honatx, gehiago luzatu gabe, aste osoaren kronika, hitzetan eta argazkitan.

MAIATZAK 27, OSTIRALA

Ruper Ordorika kantaria etorri zen Leitzara. Aski ezaguna Euskal Herri osoan, eta aspaldikoa gainera. 20 urte inguru badauzka bere lehendabiziko lanak, eta Euskal Herrian musikari askorentzat erreferentzia izan da. Emanaldia zinean egin zen, eta 90 lagun inguru bildu ziren kontzertua aditzera.

MAIATZAK 28, LARUNBATA

Goizean mendi irteera antolatu zen, Guratzera hain zuzen. Ez zen aste osoko ekitaldirik arrakastatsuen izan, bi lagun besterik ez baitziren elkartu. Abiatu ziren, hala ere, eta baita gustura ibili ziur asko. Ea hurrengoan gehixeago biltzen garen, ez baita eronka batere zaila.

Arratsaldean Ainara Rodak eta bere musikakideek piano-kontzertua eman zuten. Hau ere klasikoa bihurtzen ari da kultur asteko egitarauan. Herrian badi-tugu musikari talentudunak, eta ongi da

haien artea herrikideekin konpartitzea. 40 lagun inguru elkartu ziren kontzertuan.

MAIATZAK 29, IGANDEA

Eta klasikoak aipatzen ari garenez, klasikoetan klasikoena. Eskulangintzako XXV. erakusketa egin da aurten. Ez da gutxi! Aurten, gainera, inoiz baino postu gehiago jarri da. 38 hain zuzen. Lan eta produktu eder askoak ikus ditzakegu urtero-urtero erakusketa honetan, eta aitzakia polita da sakelari astindutxo emateko. Goizeko saioa ongi joan zen, eguraldia lagun, baina arratsalderako eguraldi horrek berak erakusketa trakestu egin zuen, zoritxarrez.

MAIATZAK 30, ASTELEHENA

Jagoba Errekondo etorri zen, bere jakinduria Leitzan ere barreiatzera. Izan ere, asko daki gizonak, eta jendeari ia-ia gaueko 11k arte zinean eusteko gaitasuna dauka. 70 lagun inguru bildu zen hitzaldi hori entzute-
ra, eta aurrekoetan bezalaxe, ez ziren

alferrik joan izanaren sententzioarekin atera.

MAIATZAK 31, ASTEARTEA

Bidaiak eta bidaiariak protagonista. Haitzol Olaitzek eta bere lagunak Sumatran, Brasilen eta Laosen egindako bidaiak eta bertan ikusitakoak ezagutu genituen. Paraje ederrak eta bereziak, inondik ere, bidaiatzea gustuko duenari haginak zorrotzen dizkieten horietakoak. 40 bat lagun bildu ziren Asia eta Ameriketatik ekarritako berriak entzutea.

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

Aski ezaguna da Joseba Iriondo kazetaria gure artean, batez ere ETBrentzat Irakeko gerrako kronika egin zuenetik. Bi ordu luzez aritu zen hizketan, bizi-bizi eta inortxo ere aspertu gabe. Hitzaldi interesgarria benetan, bizipen pertsonalek apaindua, eta dena ederki azaldu-ta. Jendea gustura, egindako galdera ugariak horren lekuko. Berriz ere 90 lagun inguru bertaratuta. Ez da kopuru makala, hitzaldiek gaur egun izaten duten arrakasta eskasa ezagututa.



Eskulangintzako XXV. Erakusketa.



Karrapen egindako afaria.



Udaletxean jarritako erakusketak.

EKAINAK 2, OSTEGUNA

Ez gaude ohituta euskarazko filmak ikusten, baina horretara ohitzea ere komeni. Euskaraz sortutako filmak ez dira asko, ez iraupen luzeak eta ezta laburrak ere. Horietako batzuk, bost film labur hain zuzen, Leitzara ekarri zituen kultur taldeak. 15 lagun inguru bildu ziren emanaldira.

EKAINAK 3, OSTIRALA

Goizean umeentzako programazioa antolatu zen. Hain zuzen ere, Kulki taldeak ekarritako umeentzako jostaketak. Bertan bildu ziren eskolako haurrak eta baita haur-eskolakoak ere. Jostaketa eta umeak ederki konbinatzen diren hitzak direnez, ez dago esan beharrik ongi pasa zutela. Zorionez, haietaz ere oroitu ziren kultur taldekoak.

Arratsaldean protagonista musika-riak izan ziren. Aralar Musika Eskola-koak, hain zuzen. Urtero egiten dute kontzertua, eta urtero jende dezente bildu. Aurten, agian, aurrekoetan baino gutxiago; baina hala ere 200 lagun inguru. Bertako artisten lehen urratsak dira, ikusi eta disfrutatu beharrekoak, noski.

EKAINAK 4, LARUNBATA

Gazteen eguna izan zen larunbata, eta gazteak protagonista. Programazioa ere, askotarikoa. Arratsaldeko 4,30etan antzerki emanaldia, hasteko. Kabaret estiloko "Ke-tokiak" eskaini zuen Bele Bizi taldeak. 50 lagun inguru, tartean umeak ere bai. Geroxeago plazan horma-irudia osatu zuten: horretan ere gazteak, eta baita haurrak ere.

Bertso-poteoa ondoren. Bertako eta inguruko bertsolariek erakutsi zuten bertsoaren inguruan jendea gustura egoteko ez dela nahitaezkoa konstelazio nagusiko izarrak ekartzea. Bertako bertsolari iaioekin ere disfrutatzen du jendeak.

Eta gaueko 9etatik aurrera, herri-afaria (160 lagun), Mulambo perkusio taldea herrian barna, eta rock kontzertua Karrapen: Kramem, Gaitz, Eko4, Khous eta Banda Batxoki. Hortik aurrerakoa, kultur astea bai, baina egitarautik kanpokoa zen; eta, gainera, kontzertuko askozak delikatuagoa ziur asko.

EKAINAK 5, IGANDEA

Azkeneko eguna. Goizean dantza-saio polita egin zuten Leitzako eta

Portugaleteko dantzari txikiek. Xarma eta grazia berezia du gazte-txoak, eta batez ere txikienak, dantzan ikusteak. Dantzari multzo bat behintzat bada, eta urte batzuetan bederen izanen du etorkizuna taldeak. Hori ere poztekoa.

Arratsaldean Jarauta 69. Hori ere, hasieran aipatu ditugun zenbait emanaldiren antzera, klasikoa Leitzako kultur astean. Kalitate handiko txaranga, inondik ere. Hasieran jende gutxi samar ibili zen arren, pilota partida bukatu bezain laster (eskuz banakako finala baitzen!) jende gehiago agertu zen txarangarekin kultur asteari bukaera ematera.

ASTE OSOAN ZEHAR

Egunez eguneko egitaraua azaldu dizuegu, labur antzean, baina horretaz gain gehiago ere izan zen. Urtero egiten ohi den moduan, aurten ere zenbait erakusketa jarri da: ehoziri lanak, eskulanak, pintura, argazkiak eta poemak... Herriko artista edo eskulangile ezagunak edo ezezagunak lanean aritzen dira urte osoan zehar, eta estimatzekoa da urtean behin gutxienez egindakoa herritarrei erakusteko aukera izatea.

HITZA, urtebete gure artean



Urtebete joan da HITZA Leitzan banatzen hasi zenetik. Hainbat gertakizun, kontu, ustekabe eta berri ekarri dizkigu HITZAK etxera, egunero, eta euskaraz. Tolosaldean martxan jarritako trenera igo ginen Leitzan eta Areson, eta euskara indartzeko eta herrigintzarako tresna eta zerbitzu bikaina daukagu eskura.

Urtebeteko lana eta balantzea aitzakia hartuta, Jaiona Astibiari elkarrizketatxo bat egin diogu, HITZAren nondik norakoak hobekixeago ezagutzeko. Jaione da HITZAko kazetaria Leitzan eta Areson, eta lan horrek zer ikasia, zer ikusia eta zer kontaktua eman dio. Honatx Marmariki egindako galderak eta Jaioneren erantzunak:

■ **HITZAK egin du, dagoeneko, urtebete gure artean. Balorazioa egiteko aitzakia dugu, beraz. Zein da, Jaione, zure balantzea?**

Balantze oso positiboa egiten dut, bai eskarmentu propioari dagokionez, kazetari lanetan aritzeko oinarriak ikasi ditudalako, berriak bilatzen, hauen tratamendua, orria diseinatzen eta egiten... Arlo horretan asko ikasi dut eta egunero ikasten da zerbait. Eta lan honen aitzakian batez ere Tolosaldeko herri asko, bertatik,

barrendik, beren egunerokoa, piska bat gehiago ezagutzeko baliatu zait. Zer esanik ez, bertakoak, Leitzan eta Areson ere, berriak emateko aitzakiarekin, ezagutzen ez nituen hainbat arlori buruzko berri lortu baitut, eta baita jendea ezagutu ere; eta nik jakindu ahala, saiatu naiz hori guztia ahalik eta zuzenen eta txukunen irakurleiei bideratzen eta helerazten, batzuetan lortuz eta beste askotan berriz ez, seguru; hori esanda, nik uste Leitzarako nahiz Aresorako beste zerbitzu berri bat gehiago bihurtu dela HITZA bere irakurleentzat, herriko gauzen berri jakiteko zuzeneko tresna, bertakoa; baina balantze ho-

nek badu bere arantzaxoa ere, eta da, agian, ez dela oraindik etxe guztietara ailatzen: gureak, biak, herri euskaldunak izanik, egunero, etxera, euskaraz egindako egunkari bat eskura izan eta harpidetza-kopurua ez ote den motz gelditu iruditzen zait. Eskaintzen dena hobetzeaz gain, arlo hori landu beharrekoa dela deritzot.

■ **HITZA sortzeko garaian, normala denez, zenbait zalantza agertu zen; adibidez, Leitzako eta Aresoko berriekin egunero orri bat osatu ote zitekeen. Alegia, bi herriok behar adina berri sortzen ote zuten. Zer esan dezakezu horretaz?**

Garaiak izaten dira, berriak badirenak eta apenas daudenak. Gertatzen da, agian, egun edo garaitsu berean, ezin kabitu ahala berri eman beharra izatea, hainbat ekitaldik bat egiten dutelako. Baina hori gutxitan gertatu izan da, oraindainokoa. Normalean, berriak izan, izaten dira, nik jakiten ditudanak jartzen ditut, baina ttikiak edo kontatzeko gutxi dutenak izatea gertatzen da maiz, eta ezin osatuz ibili beharra ere bai... Horrelako kasuetarako, "erreserbakoak" deitzen diegun gaiak, ideiak, prest izaten ditugu eta horietaz baliatzen gara.



Jaione.

■ **Eguneroko lana, beraz, nola egiten da? Nola osatzen duzu kronika, berriak non eta nola bilatzen dituzu?**

Normalean aste bete lehenago, hurrengoko gaiak eta, gutxigorabehera zein izanen diren behinik behin bilatuta edukitzen ditugu. Hala egiten dugu denok, HITZAN: zein ekitaldi dauden kaleko karretetan erreparatu (nik uste denak irakurtzen ditudala) eta horietara joan, bandoak ere bidaltzen dituzte, plenoak, kirolen jarrailpena egin beste komunikabidetan eta

eta informazioa kazetariari helaraztekoa, azken finean zerbitzua ere bada egunkaria, eta halaxe erabiltzen dute.

Behin eguneko orria osatzeko berriak zein diren jakinda, orriari zer itxura eman erabaki behar izaten da: berri nagusia zein, zenbat zutabetara; bigarren berriekin gauza bera; argazkiak non txertatu eta zer tamainakoak, eta zein argazki...; hori, zuzendariak esandako publizitatea txertatzeaz arduratu ondoren. Diseinu horren arabera, maketa egin behar da gero. Azkenik, jakindakoa idaztea gelditzen da.



HITZAREN aurkezpena Leitzaan.

zuzeneko harremana izanez, esaterako pilota eskolakoek beraiek bidaltzen dituzte informazioa eta futbolekoekin, berriz, badut harremanetarako kide bat; bestela, han eta hemen entzuten dudana, edo norbaitek esaten didana...: “Sariren bat irabazi omen du norbaitek”, bada, berarengana joan eta galdetu; “arbola erori omen da han”, bertara joan eta ikasi zer gertatu den, lekukoak... Galdetu, jendeari deitu, eta argazkiak atera. Hori da lehentasunezkoa: kamara da lan tresnarik garrantzitsuena, (eta egiten gehien kostatzen zaidana ere bai, agian). Egia esan, Tolosaldeko herriekin parekatuta, hemen berriak bilatu egin behar dira ia beti; han berriz, herrietako eragileek ohitura hartua dute egiten duten horren berri ematekoa

■ **Eta HITZAREN barruan nola funtzionatzen duzue? Zuk kronikak Leitzaan eta Areson osatzen dituzu, baina HITZA Tolosaldekoa eta Leitzaldekoa da, eta egoitza Tolosan dauka.**

Leitza eta Aresorako, badugu egoitza tiki bat Leitza udaltxeko aurreneko solairuan dagoena, Karrape Irratiaren ondoko atean, eta hantxe dago gure erredakzio ttikia. Lana, noski, ordenagailuz egiten dugu, Machintos-ak erabiltzen ditugu, eta internet bidez Tolosaldeko erredakzioarekin lotuta nago: Tolosaldeko kazetari batek eta nik, esateko, pantaila nagusi bera dugu eta baliabide berak, eta geron arterako “barrengo sarea” esaten diogun bat. Horren bidez, hemen egindako lana

hara bidaltzen dut, zuzendariaren ordenagailura, hark zuzen dezan, Tolosaldeko erredakzioan han bertan ari den kazetari batek egiten duen modutsu berean: orria jada maketatuta eta osatuta, alde batetik eta argazkiak bestetik, tamaina eta nola moztea nahi den adieraziz. Hamaikak aldera hasten gara lanean, eta arratsaldeko zuzendariarekin orriak Tolosan egon behar du, zuzendu eta teknikoak orria “irudi” bihurtu eta inprentara bidaltzen du, Andoainera, zortzietarako. Gero, etxez etxe, banatzaile enpresaren lana hasten da, HITZA harpidedunen etxetara helaraziz. Orduantxe bukatzen da egunkaria egiteaz: irakurleak berriak jasotzen dituen.

HITZAN sei lagun ari gara kazetari lanetan: ni hemen eta gainerakoak han, bakoitzak bere eskualdeko berriekin orrialde bat osatuz (Tolosak bi); zuzendaria; teknikoak; kudeatzailea eta publizitate agentea. Denera, hamar lagun.

Aipatzekoa da, Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA bezala, Euskal Herrian beste lau ere badirela: Lea-Artibaikoa, Oarsoaldekoa, Goiherrikoa eta berriena, Irutxulokoa. Urtero, HITZA berri bat sortzeko egitasmoa hartua dago, piskanaka-piskanaka Euskal Herriko eskualdeetako berriak, euskaraz eta bertatik eginda, bertako biztanleei eskura jartzeko. Esan behar da, gainera, prentsako euskarriaz gain, paperezkoa alegia, bakoitzak bere web-orria ere baduela, egun osoan zehar gaurkotuz joaten dena, eztabaidetan parte hartzeko aukera ematen duena, inkestetan, lehiaketatan, gure herrietako modu guztietako ekitaldien berri jaso eta eman ere egin daitekeen agendak eskuragarri dituen, eguneko irudiak... Gure HITZAREN honako hau da: www.tolosaldeko-hitza.info.

■ **Kazetaria zara eta, noski, askotan jo behar izaten duzu jendearengana informazio eske. Askotan, gainera, ez dira berri eta momentu gozoak izaten, eta egoera delikatuetan ere hor egon behar izaten**

duzu. Nolako harrera egiten dizu jendeak, oro har?

Harrera oso ona. Neretzat ere horixe izan da eta da, eta izanen da gero ere, asko kostatzen zaidan gauza bat, jazo dena gertaera gogorra edo gutxienez, “delikatua” denean: gertatu dena berria dela jakin eta bertara joan eta galderak egin beharra. Saiatu naiz beti ahalik eta erreparorik handienarekin egiten, mindu gabe, errespetuz, konfidantza emanaz. Eta erantzuna halaxekoa izan da ere. Oso ongi hartu naute, eta beti ongi erantzun didate eta askotan gauzak erraztu ere bai.

Bestelako kasuetan, berriz, lasaiago aritzen da lanean, eta informazioa eskuratzeko erosoko egiten da norberarentzat, eta emailearentzat ere seguru. Baina, edozein kasutan, ongi hartu naute, oso ongi eta asko lagundu eta erraztu didate egin beharrekoa.

■ Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta handiagoa da ziur asko, baina agian ez dago behar bezain errotua oraindik. Saiatu beharko duzu, hortaz, jendeak ongi ulertzeko moduan idazten, idazkera gehiegi ez konplikatzeko. Nola egiten duzu hori?

Ahal dudan guztietan eta posible den heinean, bertako hizkera erabiliz. Oinarriko arauak kontutan hartu eta hizkuntza naturala, guk erabiltzen dugun modukoa erabiliz, eta Leitzan nahiz Areson modu berezian esaten direnak, halaxe eginez: “istorlekuak” eta “galekuak”, “orantzaroa” eta “olentzaroa”... Guretzat arrotz izan litekeen hizketa modua ekidinez. Noizean behin, aukerak uzten badu, gaur egun gutxi erabiltzen den hitzen bat ere sartzen dut, pro-

pio, horrelakoak jakinarazteko. Interesa bizteko tresna baliagarri delakoan, beti ere.

Berezia da askotan gertatzen dena, erredakzioko gainerako lankideekin: maiz deitu izan dute, hitzen bat ez zutelako eza gutzen edo esaneraren bat edo...: “albietea”, “ostileka”, “istorra” bera, “arrastoa”-ri beraiek “marra” esaten diote...

■ Urtebeteko lanean pozak eta atsekabeak izanen zenituen, zalantzarik gabe. Horietako batzuk azalduko dizkiguzu?

Pozgarrietatik hasiz, edozein ekitaldi politari buruz berri eman dudanean, gustura aritu naiz: Aresoko orantzaren etorrera, lehengoan Kulkiren jostaketaren argazkiak ateratzerakoan... Une asko. Eta gero, elkarrizketa bereziak egitea egokitu eta Ursularekin egon nintzenean, oso-oso atsegina eta interesgarria izan zen.

Atsekabeak, berriz, bereziki gogorra egin zaidana, zalantzarik gabe, gure lehengusuaren atxiloketaren berri ematea, torturatu zutela ere idaztea eta nola... Eta gure herrietan azken hilabete pare honetan izan diren bi gertaera latzen berri ematea ere zail egin zait, gertaerak ere halaxe izan ziren eta, nik uste, denontzat: Sarrion lan istripuz hil zen Mari Josearena eta, azkenekoa, kotxe batek harrapatuta hil zen Josebarena.

■ Eta, jakina, gure herriak askozaz hobeki ezagutzeko parada eman izan dizu HITZAko kazetaria izateak. Hala da?

Bai. Lehen ere aitatu dudan moduan, ezagutzen ez nituen edota jarraitzen ez nituen hainbat arlo eta lani buruz informa-

zioa eskuratu behar izan dut eta aukera paregabea izan da niretzat horien berri jakiteko: jendea ezagutu egin dut, lehen bistaz bakarria ezagun zena; kirolaren arloa ezagutzen ari naiz, laguntzaile onak ditut horretan; eta gezurra badirudi ere, neretzat Areso hain bertan egonik ere, ezezaguna zen erabat, eta lan honetan hasiz geroztik, herria eta bertakoak ezagutzen ari naiz.

■ HITZA euskarazko egunkaria da, beraz, komunikabidea. Baina garbi dago zerbitzu bat ere badela, herritarrentzako zerbitzua hain zuzen. Edozein gauzaren berri eman nahi izanez gero, hortxe dugu HITZA. Erabiltzen al dute herritarrek zerbitzua? Edo gehiago erabili beharko genuke?

Ez gehiegi eta gehiago, askozaz gehiago erabili beharko genuke. Azken finean, egin nahi denaz, egiten denaz, gainerako-ei informazioa ematea oso baliagarri da, ideiak jasotzeko edo emateko, herriak bizirik daudela adierazteko, jendeak lan egiten duela erakusteko, informazioa edo eskaintza zabaldu eta dagokionari edota interesa duenari helerazteko... Ez da ahaztu behar gainera, Leitzan eta Aresoz gain, denera, Tolosaldeko 28 herritara hedatzen dela bertako informazioa: jendea erakartzeko bide egokia da, beraz.

Bestalde, zorion-agurren tartea ere hortxe du, iragarkiena ere bai.

Eskura dugun tresna da, inolako zalantzarik gabe, eta erraz-erraza horretaz baliatzea: 948 510 973 edo 687 410 118 telefono zenbakietara deituz; leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikoa erabiliz; HITZAren bulegora joanez.

Horraio elkarrizketa. MARMARIK, besterik gabe, HITZA gurean sendotzeak eta errotzeak duen garrantzia azpimarratu nahi du, eta zuek guztiak animatzen zaituztegu harpidetza egitera eta HITZAri zuen etxeetan toki bat egitera. Euskararen mesederako, herriaren mesederako, eta baita zuen mesederako ere. Animo, beraz.

«Leitzako nahiz Aresoko irakurleentzat beste zerbitzu bat bihurtu da HITZA, herriko gauzen berri jakiteko zuzeneko tresna, bertakoa»

Ikusi al dituzu inoiz Leitzan?

Bada, guztiak ere Leitzan bizi diren hegaztiak edo txoriak dira. Telebistako dokumentalen bitartez animalia exotiko eta berezien berri izaten dugu, eta oso interesgarria iruditzen zaigu. Baina askotan etxean bertan zer daukagun ez dugu jakiten, eta hori ere interesgarria da.

Orriotako argazkiotan agertzen diren hegazti edo txori guztiak Leitzan bizi dira. Alegia, gure herritik atera gabe ikus ditzakegu, horretarako behar adinako pazientzia izanez gero. Pako Zufiaurrek izan badu, eta baita argazkigintzarako trebetasun handia ere, eta horri esker ekarri ahal izan ditugu irudi hauek Marmarira. Eskerrak eman behar dizkiogu Pakori, beraz, gure herrian bertan duguna hobeki ezagutzen laguntzeagatik.

Zata



Martin Arrantzalea



Txorrua



Ur-zozoa



Txepetxa



Pitxartxarra






Argi-oilarra



Garrapoa



Okil handia




Arrano
sugezalea



Antzandobia



Eskinosoa



Euli-txoria



Kukua



Buztantxuria



Hizkuntza paisaia

Zer den hizkuntza paisaia? Bada, etxetik atera eta, hizkuntzari dagokionez, ikusten dugun panorama: errotuluak, kartelak, seinaleak, pankartak, paretatan idatzitakoak... Horiek guztiak zer hizkuntzatan daude? Horri buruz ari gara “hizkuntza paisaia” esaten dugunean.

Eta kontuak badu garrantzia. Hizkuntza begietatik ere sartzen baita. Hizkuntzak balioa dauka erabiltzen dugulako, eta, jakina, gutako gehienontzat, ahoz erabiltzen dugulako. Gure harreman gehienak ahozkoak izaten dira-eta. Baina karteletan, errotuluetan, idatzietan... agertuz gero, hizkuntza horrek indar handiagoa hartzen du: prestigioa, erabilgarritasun soziala, balioa... nahi den bezala deitu, baina garbi dago bizitza eta espazio publikoan agertzen den hizkuntzak balioa hartzen duela hiztunarentzat.

Horregatik da garrantzitsua euskara han eta hemen presente egotea. Ez da hori gauzak euskaraz egiteko arrazoi bakarra noski; euskara gure hizkuntza da eta horregatik erabiltzen dugu. Baina arrazoi indartsu horretaz gain, egia da merezi duela ahalegin bat egitea euskara paisaian indar osoz ager dadin, eta gure hizkuntzak ere paisaia horretan behar duen tokia har dezan.

Leitzan asko aurreratu da azken urteotan, zalantzarik gabe, euskarak hizkuntza paisaian duen tokian. Lehen ohikoak ez ziren gauzak, gaur egun euskaraz ikus daitezke. Eta, are gehiago, alor batzuetan euskara da nagusi: deialdiak, kartelak, errotuluak... Baina, noski, oraindik ere baditugu hutsuneak, eta horiek ere ikusgarriak dira. Bereziki deigarria da, esaterako, obratako karteletan gertatzen dena: gehien-gehienetan

erdara hutsez jartzen dituzte. Euskaraz jartzea ez da bereziki zaila, nahikoa testu arruntak direlako, baina gehienetan erdara hutsezkoak ikusten ditugu, eta ederki ikusten direnak izaten dira gainera.


Baina dena hitzez azaltzea baino errazagoa eta argiagoa izanen da, ziur asko, irudietan ikustea. Leitzako inguruan itzultitxo bat eginda ikus daitezkeen zenbait irudi ekarri ditugu hona, esaten ari garenaren argigarri. Gehienbat errotuluak eta seinaleak jaso ditugu, agerikoenak izaten direlako, eta adibide ona direlako. Denetik ikusiko duzue bertan: herri euskalduna garela kontuan hartzen dutenak, batetik, eta hemengo hizkuntza euskara dela gogoan hartu ez edo ahaztu dutenak bestetik.

Honatz, bada, hizkuntza paisaiaren zati bat erakusten diguten argazkiak:




Ikusi makusi, zer ikusi?


Horixe, bada. Zer da zuk marrazkiotan ikusten duzuna? Izan ere, gauzak ez dira beti lehendabiziko begiratuan ematen dutena. Batzuetan, sarritan, ikusmenak engainatu egiten gaitu, eta arreta pixka bat jarritz gero uste ez genuena agertzen hasten da. Egin ezazu proba ariketatxo honekin:




Piramideak edo tunelak?




Ezinezko kutxa. Ez zaitetz saiatu horrelako bat egiten, errealitatean ezinezkoa da eta.



Zirkulu bitxia. Zirkulu perfektua al da? Ingurukoa estali eta jakinen duzu.




Itxurak engainatu egiten gaitu. Marrazkiko bi grisak berdin-berdinak dira, gezurra badirudi ere.




Lerro paraleloak. Paraleloak al dira lerro hauek?

ἄνθρωπος


Edozein aldetatik hartuta ere. Goitik edo behetik begiratuta ere, gauza bera irakurtzen dugu.



Mugitzen den irudi estatikoa. Jarri begirada marrazkiaren erdi-erdian, handik mugitu gabe. Deus mugitzen al da?




Blokeak zenbatu. Ea blokeak zenbatzeko gauza zaren.



Hiru soldadutxo. Zein da hiruetan altuena? Neurtu itzazu eta ohartuko zara.



Zaldiaren begirada. Aurrera edo atzera begira ote dago zaldia?



Zorabiatzeko modukoa

Z-Z TXORIZALEAREN KASUA¹

Identifikazio errakuntza batek Z-Z ornitologo jaunaren ospea kolokan jarri zuen, harrigarria baitzen kas-kabeltza eta amilotx mottoduna nahastea. Haren inguruan zebiltzan ikasle gehienek aditu zioten identifikazio okerra, eta bakar batzuk elkarren ukondoak jotzen hasi ziren. Ordubete geroago, ordea, areago harritu ziren, irakasle bikainaren koaderno ttikian akatsaren konfirmazioa irakurri baitzuten: *Parus major* (kas-kabeltz arrunta), haiek denek *Parus cristatus* (amilotx mottoduna) ikusi zuten lekuan eta orduan.


Neska gazte batek ausardia bildu eta apal-apal ohartarazi zuen:

-Z-Z jauna: 10:42ko geldialdian denok *cristatus* ikusi dugu zumarraren erdialdean...

-Ez al diozue ahotsaren metala aditu?

Inork ez zuen txintik esan, irakaslearen ohorea areago minduko zelakoan; baina den-denek gauza bera gogoratzen zuten, hau da, 10:42ko geldialdian, Gorritaran errearen beste aldean, traktore bat zebilela alor bat jorratzen eta, hark sortutako zarata zela eta, ez zitekeela ez txori-ahotsaren metalik ez mailutzar baten danbategorik aditu.

Z-Z irakaslearen itsumena hilabete gutxiren buruan gailendu zen. Gorritaran errearen ertzean ikasleekin egindako bueltaxka hartatik aurrera, ziztuan etorri zitzaion begietako dama beltza; al-



ferrik izan zituen ebakuntzak eta mota guztieta-ko betaurrekoak: lau asteren bururako ez zen putrea (*Gyps fulvus*) eta ostruka (*Struthio camelus*) bereizteko gauza. Txorizale hura munduko ornitologo guzietan ezagutzen zuten eta, begietako gaitz haren berri izan zutenean, hil izan balitz bezalako mezuak helarazi zizkioten elkarri.

Dena dela, haren egonaria eta arrandia ongi ezagutzen zutenek ere ez zuten espero orduan gertatu-ko zena: Hurrengo asteetan Z-Z jaunaren irudiak neurrigabeko itzala hartu zuen; txorizaleen mundutxo igaro eta, hegazti unibertsal baten moduan, nazioarteko prentsaren orrialdeetara saltatu zen. Egunkari guzietan ongi horniturik zekarten albistea: Z-Z jauna gauza zen edozein hegazti bereizteko, haren ahotsa aditu orduko.

Elkarrizketa haien arrakasta mezuaren xalotasunean zegoen, baina baita hitz berdintsuen errepikapenean ere:

«Niri igoyal zait txoria ikusi edo aditu; berdin-berdin antz ematen diot. Txepetxaren txio zirta nahastezina da. Zozoa eta tordantxa nahasgarriak dira urrunetik ikusita, baina edozeinek bereizten ahal

ditu bien ahotsak. Emadazu zernahi txori-soinu eta segituan esanen dizut haren izena; hiruzpalau hizkuntzatan, gainera». Eta gaitasun harrigarri hura aberasteko, hamaika konparazio aipatzen ohi zituen, bukaerako ironia gazi-gozoa ahaztu gabe: «Joxepi itsulaguna pasabidean barrena heldu zaidanean bazkaria prest dagoe-la esatera, ixkixuaren (*Garrulus glandarius*) oihu garratzarekin nahasten dut haren ahots presazkoa».

Z-Z jaunak ez zuen bere bizimoduaren funtsa aldatu; zer dela eta aldatu behar, ordea? Ornitologian eman zuen bizitza osoa, eta ornitologia bere esanetara izatea lortu zuen orduan. Lehenago haren begiak bezala, orain bere entzumena eta egonaria gorensten ziren mundu osoan. Eta garai batean bezala, ikasleak aho zabalik uzten segitzen zuen; areago oraindik. Izan ere, begien zentzumena galduta, entzumenaren makulu bakarra baitzuen zorroztasunaren bidean ibiltzeko.

Egun haietako batean, bazkalorduan zen, Floyd jaunari ez-tarria lotu egin zitzaion. Lorategian zegoen eguneroko entzuketa egiten. Ixkixuaren oihu presatia entzuten zuen, han urrun aurrena, baina pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen. Ixkixua ondo ondoan izan arte, ordea, ez zen ohartu Joxepi zerbitzaria zetorkiola, bazkalordua zela errepikatuz eta gogor gelditzen ari ote zen oihuka galdetuz.



tzaria zetorkiola, bazkalordua zela errepikatuz eta gogor gelditzen ari ote zen oihuka galdetuz.

KUKUE

¹Txori batek esan digu Z-Z horrek Zabaleta-Zabaleta adierazten duela, baina guk ezin izan dugu konfirmatu. Egilearen oharra.

TXISTEAK

Mutila Iruñera joan da, eta han neska ezagutu. Gustuko gertatu, non-bait, eta elkarrekin ibiltzen hasi dira: zinera, bazkaltzera, kontzertura... Halako batean, neskak mutilari:

- Etorriko al zara heldu den larunbatean etxera afaltzera? Ama alarguna da, eta nire ahizpa eta biok baizik ez gara.

- Baina gero etxera joateko autobusik ez dut-eta...

- Zaude lasai. Gure etxean eginen duzu lo.

-A bai. Bai.—gogoetan hasi zaio.

Eta aste guzia hori gogoan, irudimena jokoan. Larunbatean Iruñera iritsi orduko farmaziara. Han emakume eder bat atera zitzaion, eta "zer nahi duzu?". Mutilak ixilka:

-Kondon bat. Kondon bat nahi nuke. Gaur arratsean andregaiaren etxera joanen naiz, eta zorte piska batekin, nik uste, ño!

Besteak kondona atera dio, mostradorearen gainean utzi, eta:

-Emaidazu beste bat, ahizpa ere badu-eta. Hura ere ederra, ikaragarria!

Besteak eman dio eta:

-Hirugarren bat emaidazu, zer demontre! Ama ere sasoi onekoa omen da, ez dut ezagutzen, baina emaidazu hirugarrena, akaso ama ere suerte piska batekin, beharbada...

Kondonak hartu ditu, eta gauean familiarekin afaltzera. Bere andre-gaia aurrean, ahizpa eta ama ezker-eskuin. Eta gure mutila hantxe, ixil-ixilik jaten, eta neskak esan dio:

-Ai, Txomin, ez nekien zu hain lotsatia zinela.

-Nik ere ez nekien zure ama botikaria zela

Gizon batek andrea haurdun zuen, eta, klinikan zegoela, ea eduki ote duen edo kezkatuta, joan da korrika eta sartu da larrialdietara:

— Doktore jauna, doktore jauna, begira, nire andreak haurra izan du, eta ikusi nahi nuke.

— Nor zara?

— Xabier Martin.

— Bai, hirugarren solairuan.

Joan da hirugarren solairura, eta beste ate bat ireki, eta...

— Doktore jauna, doktore jauna, nire andreak haurra izan duela eta ikusi nahiko nuke.

— Begira, zure andrea oso ongi dago. Ez da inongo arazorik izan, baina semeak...

— Zer pasa da, zer pasa da semearekin?

— Ez, pasa ez da deus pasa. Oxigenoa jarri behar izan diogu.

- Dioossssss! Nik Xabier jarri nahi nion eta.


EROSKOPOA



Aries: noiz hasi behar dozo sukaldaritzako ikastaron baten? Arraultze prejittue prestatzen re ez dakizo ta!



Taurus: gabetan lentxeo sartu obera, lanea beti berandu iritsi nahi ez badozo.



Gemini: leihoko lorek ureztatzeko garaian kontuz ibili, ta kalen dabillen jendez re gogoratu!



Cancer: aspaldi hontan etxetik atera gabe zaude, baño lasai eon, azterketak bukatzeko gutxi falta da ta.



Leo: hillen bukaerara lasai iritsi nahi badozo hasi zure gastuk kontrolatzen.



Virgo: noizen behin pixko bat leitzea re ez dau gaizki. Noiz leittu ziñun azkeneko liburue?



Libra: beti futbolari beide ez al za aspertzen? Azkenen balon aurpegie jarriko zazo!



Scorpius: oporreta joan nahi badozo hasi bonolotoan jokatzen, bestela jai dozo!



Sagitaris: beti interneten sartuta eon beharren hobe ziñuke gehixe aterako baziñe.



Capricornius: beti sozidatzen sartuta zaude. Aspaldi hontan izandu al za medikuten?



Aquarius: bada garaie eroa erabiltzen ikasteko, bestela kalkuladora eskutan dozola ibili beharko dozo beti.



Piscis: zuri xamarra zaude ta kontuz ibili, aurten euzkik fuerte joko do ta.

zer diozu?

eta zuk,

Ainara Gastearena



- Eskuko telefonorik gabe bizi al zaitetzke? Bai
- Eta ordenagailurik gabe? Bai
- Kirola: egitea edo ikustea nahiago? Egitea nahiago, baina ez dut egiten.
- Kirol bat (egiteko) aukeratu behar izanez gero: Igeriketa.
- Kirol bat (ikusteko) aukeratu behar izanez gero: Pilota eta saskibaloia.
- Homosexualak ezkon daitezke. Zer iruditzen? Pertsona guztiok dugu nahi dugunarekin ezkontzeko eskubidea, hauek ukatzen dizkigutenek dute arazoa.
- Leitza azken urteotan dezente aldatu omen da. Onerako edo txarrerako? Txarrera dudarik gabe, Igor "Navalcarneroko" espetxean bahituta dutenez.
- Zergatik agertzen da Leitza hainbeste komunikabideetan? Potroak ukitzeko abildade miresgarria dute, bai horixe!
- Aukeratu behar izanez gero, zer ekarriko zenuke Leitza, hondartza edo eski-estazioa? Hondartza.
- Leitzaan ehiztari ugari dago. Herriko armarrarian, otso bat. Kontraesana edo guztiz logikoa? Ez dute zerikusirik.
- Nola deitzen diozu Baztarlari? Antena edo Baztarla? Antena.
- Oporrak, laster. Inora joateko asmorik? Nireak ez dira nahi ditudan bezain laster.
- Oporretan Leitzatik atera gabe gelditzea txarra edo kaltegarria ote da? Oporrak inoiz ez dira kaltegarriak.
- Zer erakutsiko zenioke Leitza bisitatzerantzera etorri den kanpotarrari? Por-tua.

Aitziber Bergara

- Eskuko telefonorik gabe bizi al zaitetzke? Bai. Sarritan itzalita izaten dut momentu batzuetan sobra dela uste dudalako. Gehiegi erabiltzen da.
- Eta ordenagailurik gabe? Bizi, biziko nintzateke, baina falta handiagoa sumatuko nuke, lanerako tresna baliagarria baita.
- Kirola: egitea edo ikustea nahiago? Azkenaldian ez naiz asko egiten ari, baina egitea nahiago.
- Kirol bat (egiteko) aukeratu behar izanez gero: Igeriketa edo mendian ibiltzea.
- Kirol bat (ikusteko) aukeratu behar izanez gero: Gimnasia artistikoa. Horretan aritzen diren mutilen bizkar zabalak, anatomia ikasteko modukoak dira.
- Homosexualak ezkon daitezke. Zer iruditzen? Zergatik ez bada!
- Leitza azken urteotan dezente aldatu omen da. Onerako edo txarrerako? Azkenaldian txarrerako nik uste.
- Zergatik agertzen da Leitza hainbeste komunikabideetan? Leitzaundi, Iruñen pare...
- Aukeratu behar izanez gero, zer ekarriko zenuke Leitza, hondartza edo eski-estazioa? Hondartza, dudarik gabe. Eski estazioak leku xebreak iruditzen zaizkit.
- Leitzaan ehiztari ugari dago. Herriko armarrarian, otso bat. Kontraesana edo guztiz logikoa? Hau galdera! Zer esanen dizut bada! Azterketa soziologikoa egin beharko da!
- Nola deitzen diozu Baztarlari? Antena edo Baztarla? Txikitari Aizan esaten genion, baina Aizan beste bat omen da. Orain Baztarla.
- Oporrak, laster. Inora joateko asmorik? Andaluziara, Pirinioetara... Oraindik ez dut erabaki baina zerbait egingen dugu.
- Oporretan Leitzatik atera gabe gelditzea txarra edo kaltegarria ote da? Ez txarra, ez kaltegarria, baina txoko ezezagunak ezagutzea nahiago.
- Zer erakutsiko zenioke Leitza bisitatzerantzera etorri den kanpotarrari? Orain dela gutxi arte, alde zaharra. Orain berriz, alde zaharreko puska bat.

